

Eraitzen laburpena

2019

Iparaldeko
parte-hartze kulturalari
buruzko inkesta



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 2019ko azaroan

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazio teknikoa: ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana: SIADECO, S.COOP.

Itzultzailea: LETE ITZULPENAK-TRADUCCIONES, SL

Diseinua eta maketazioa: EUSKO PRINTING SERVICE, SL

Inprimategia:

ISBN:

Lege-gordailua:

Emaitzen laburpena

Euskara

Iparraldeko
parte-hartze kulturalari
buruzko inkesta

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. Sarrera	9
2. Kulturarekiko jarrera orokorrak	10
2.1 Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren autopertzepzioa	10
2.2 Kultura-informazioko maila	10
2.3 Parte-hartze kulturalerako motibazioak	11
3. Kultura-praktikak	12
4. Asoziazionismoa eta amateur mailako praktikak	15
4.1 Asoziazionismo kulturala	15
4.2 Amateur mailako praktika artistikoak	15
5. Praktika digitalak	18
5.1 Kultura-praktika digitalak	18
5.2 Kultura-educia duten plataforma digitaletara harpidetzea	19
5.3 Sare sozialak parte-hartze kulturalean	20
6. Euskarazko parte-hartze kulturala	22
6.1 Euskarazko kultura-praktikak	22
6.2 Euskarazko praktika digitalak	24
Eranskina: Inkestaren fitxa teknikoa	26

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa.	Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren batez besteko balorazioa	10
2. Grafikoa.	Kultura-informazioko mailaren autobalorazioa	10
3. Grafikoa.	Parte-hartze kulturalerako motibazioa praktika motaren arabera (%)	11
4. Grafikoa.	Pertsonak, kultura-praktika desberdinak egiteko maiztasunaren arabera (%)	12
5. Grafikoa.	Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren bilakaera (%)	13
6. Grafikoa.	Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak (%)	15
7. Grafikoa.	Kultura-elkarteren batean parte hartzen duten pertsonen kopurua- ren bilakaera (%)	15
8. Grafikoa.	Azken urtean amateur mailako kultura-praktikaren bat egin duten pertsonak (%)	16
9. Grafikoa.	Amateur mailako kultura-praktiken intzidentzia-rankinga (%)	16
10. Grafikoa.	Amateur mailako praktiken bilakaera, 2008-2018 aldian (%)	17
11. Grafikoa.	Kultura-praktika digitalen intzidentzia-maila biztanlerian azken hiru hilabeteetan (%)	18
12. Grafikoa.	Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpi- detutako pertsonak, biztanleria-taldean arabera (%)	19
13. Grafikoa.	Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpi- detutako pertsonak, biztanleria-taldean arabera (%)	19
14. Grafikoa.	Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpi- detutako pertsonak beren tipologiari jarraikiz, biztanleria-taldean arabera (%)	20

15. Grafikoa.	Ohiko internauten artean, kultura-praktikek sare sozialetan duten intzidentziaren rankinga (%)	21
16. Grafikoa.	Normalean euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutela esaten duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)	22
17. Grafikoa.	Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldeen arabera (%)	23
18. Grafikoa.	Euskarazko kultura-praktiken bilakaera 2008tik 2018ra bitartean, biztanleria osoaren artean (%)	24
19. Grafikoa.	Praktika digitalek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldeen arabera (%)	25

1. SARRERA

2018ko Iparraldeko Parte-hartze Kulturalaren Inkestaren emaitza nagusiak laburbiltzen ditu txosten honek. Bereizitako dokumentu batean kontsultatu daiteke emaitza guztien txostena, baita galde-sorta ere gaineratzen duen txosten metodologikoa ere.

Hainbat jardueratara bertaratzea edo jarduera horiek praktikatzea biltzen du, hala nola zuzeneko ikuskizunak, irakurketa, musika edo zinema, asoziazionismo-maila eta amateur mailako praktika artistikoak; eta kultura-edukiei lotutako praktika digitalak. Horrela, begirada hirukoitza eskaintzen dio 15 urtetik gorako biztanleriaren parte-hartze kulturalari.

Lurraldeen (Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa) arabera ordezkarritasuna ziurtatzen du 1.150 elkarrizketako laginak, baita bizileku-udalerriaren tamaina, sexua, adina eta euskaren eza-gutza, eta horrek parte-hartze kulturalaren banaketa soziala zein den jakitea ahalbidetzen du, biztanleria-talde guztien arabera (erdaldunak eta euskal hiztunak)¹.

Bost kapitulutan aurkezten da informazioa:

- ◆ Parte-hartze kulturalaren inguruan biztanleriak dituen jarrerei buruzko adierazleak biltzen ditu lehenengoak, hala nola biztanleriak ematen dion garrantzia, eskueran daukan informazioa eta praktika guztiak egitera bultzatzen duten motibazioak.
- ◆ Kultura-praktiken arte eszenekiko, musikarekiko, irakurketarekiko, ikus-entzunezkoarekiko eta erakusketetarako bisitekiko xehetasuna biltzen du bigarren kapituluak.
- ◆ Elkarrekin parte-hartzea eta amateur mailako praktikak deskribatzen ditu hirugarren kapituluak.
- ◆ Praktika digitalek ezaugarritzat dituzten adierazleetan sakontzen du laugarren kapituluak, betiere kontuan izanda praktika horiek funtsezkoak direla gaur egungo parte-hartze kulturala eza-gutzeko.
- ◆ Euskarazko parte-hartze kulturala deskribatzen da bosgarren kapituluan, azkenik.

Ahal den guztietan, txostenak gaur egungo egoera orain dela hamar urtekoarekin alderatzen du, betiere *2007-2008 aldiko Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkestan* oinarritua.

¹ Eranskinean labur bilduta dago inkestaren fitxa.


2. KULTURAREKIKO JARRERA OROKORRAK

2.1 Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren autopertzepzioa

1etik 10erako eskala batean, zeinean pertsonen kultura-jardueretan parte hartzeak berentzat duen garrantzia puntuatzea eskatzen den, **7,5 puntuan** dago batez besteko balorazioa. Horrenbestez, **balio handia** da, eta parte-hartze kulturalak errekonozimendu soziala baduela erakusten digu horrek.

1. Grafikoa.

Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren batez besteko balorazioa



2.2 Kultura-informazioko maila

1etik 4rako balorazio-eskala batean, non 1 ezer den eta 4 asko den, pertsonen **2,89an** sailkatzen dute beren inguruneko kultura-eskaintzari buruzko informazio-maila. Hau da, **nahiko informatu** daudela uste dute.

2. Grafikoa.

Kultura-informazioko mailaren autobalorazioa



2.3 Parte-hartze kulturalerako motibazioak

Premia desberdinak betetzeak bideratzen du motibazioa kultura-jarduerarekiko. Gainera, premia desberdinak egokiagoak izan daitezke premia jakin batzuk edo beste batzuk gogobetetzeko.

Normalean lau motibazio mota nabarmentzen dira, eta kulturak erantzuteko gaitasuna duen premien multzoa biltzen dute:


- ◆ **Motibazio sinbolikoa:** pertsona gisa aberasteko premiarekin dago lotuta, autoerrealizatzeko premiarekin.
- ◆ **Motibazio kulturala:** jakintza gehitzeko premiarekin dauka zerikusia espezifikoki.
- ◆ **Motibazio soziala:** jarduera kultural batean parte hartzeak beste jende batekin erlazionatzeko eta esperientzia partekatzekeo premiarekin izan dezake zerikusia.
- ◆ **Motibazio emozionala:** azken batean, deskonektatzeko, errutinatik ateratzeko eta sentsazio berriak esperimentatzeko premiak laugarren motibazioa definituko du.

Parte hartzeko modu bakoitzak motibazioen patroia desberdina du:

- ◆ **Kultura-praktiketan** pisuaren banaketa homogeneoa dago motibazio sinbolikoaren eta kulturalaren artean, biak ere emozionalarekiko tarte handira jarraitzen dutelarik, eta are handiagora sozialarekiko.
- ◆ **Praktika digitaletan** motibazio kulturala nabarmentzen da aldearekin (kasuen % 48,3), eta emozionala eta sinbolikoa, aldiz, **amateur mailako praktiketan** nabarmentzen dira (kasuen % 39,1 eta % 34,4).

3. Grafikoa.

Parte-hartze kulturalerako motibazioa praktika motaren arabera (%)




3. KULTURA-PRAKTIKAK

Praktika jakin batzuk egiten diren maiztasunari **zeharkako begirada** batek kultura-jardueren artean hiru bloke detektatzea ahalbidetzen du.

4. Grafikoa.

Pertsonak, kultura-praktika desberdinak egiteko maiztasunaren arabera (%)



*Oharra: Irakurketan irakurritako liburuen kopuruari buruzkoak dira datuak ("1etik 3ra bitarte" eta "4 baino gehiago") eta bideo-jokoetan erabilera-maiztasunari buruzkoak ("Zenbait aldiz astean edo egu-nero" eta "Noizean behin")

Biztanleriaren guztizkoaren % 60aren gaineratik honako hauek daude:

- ◆ Liburuen irakurketa (% 82,4)
- ◆ Zinemara joatea (% 71,4)
- ◆ Kontzertuetara joatea (% 61,5)

Ondoren, % 40tik % 50era bitarteko portzentajeekin, honako hauek ditugu:

- ◆ Museoetarako bisitak (% 50,4)


- ◆ Kontzertuetara joatea (% 50,2)
- ◆ Antzerkira joatea (% 45,7)
- ◆ Liburutegira joatea (% 40,4)

Nabarmentzekoak dira, halaber, arte-galerietarako bisitak eta bideo-jokoetara jolastea (% 32,9 eta % 20,6, hurrenez hurren).

Gainera, praktika desberdinen **2008-2018 aldiko konparatiba historiko** bat egitea ahalbidetzen duten galderak barnean hartzen zituen inkestak.

5. Grafikoa.

Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren bilakaera (%)



*Kulturaren Euskal Behatokiaren "2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestarren" ustiapenetik beretik datoz 2008ko emaitzak.

Bilakaera positiboen artean, honako hauek nabarmentzen dira gehikuntza handienarekin:

- ◆ Dantzara joatea (portzentajezko +40,2 puntu)
- ◆ Kontzertuetara joatea (portzentajezko +32,3 puntu)
- ◆ Antzerkira joatea (portzentajezko +29,2 puntu)

- ◆ Museoetara bertaratzea (portzentajezko +26,5 puntu)
- ◆ Arte-galerietara edo erakusketetara joatea (portzentajezko +21,3 puntu)
- ◆ Zinemara joatea (portzentajezko +17,3 puntu)

Neurri txikiagoan, honako hauek ere gehitzen dira:

- ◆ Liburutegira bertaratzea (portzentajezko +10,6 puntu)
- ◆ Bertso-saioretara bertaratzea (portzentajezko +7,3 puntu)
- ◆ Liburu-irakurketa (portzentajezko +7,1)
- ◆ Aldizkari-irakurketa (portzentajezko +5,4)

Mantentzen diren praktiken artean grabatutako musika-entzutea dago (eguneroko entzutearen % 67 inguru).

Jaitsieren artean, egunkarien irakurketa dago, % 14,2ko beherakadarekin.

Oro har, praktika hauek kontuan izanda, parte-hartze kulturalaren **bilakaera global positiboa** egon da hamar lehenengoen artean.


4. ASOZIAZIONISMOA ETA AMATEUR MAILAKO PRAKTIKAK

4.1 Asoziazionismo kulturala

Biztanleriaren % **25,4k** kultura-elkarteren batean parte hartzen du modu aktiboan.

6. Grafikoa.


Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak (%)



2008-2018 konparatiba historiko batean elkarteetako parte-hartzeak portzentajezko 9,1 punturen jaitsiera izan du.

7. Grafikoa.

Kultura-elkarteren batean parte hartzen duten pertsonen kopuruaren bilakaera (%)




4.2 Amateur mailako praktika artistikoak

Iparraldeko biztanleriaren % **42,5ek** adierazten du gutxienez urtean behin parte hartzen duela sormenezko jardueretan, hala nola idazketan, margolaritzan, dantzan, artisautzan eta beste hainbatetan.

8. Grafikoa.


Azken urtean amateur mailako kultura-praktikaren bat egin duten pertsonak (%)



Zeharkako begirada batetik ikusita, eskulanak eta artisautza dira amateur mailako praktika zabalduenak (% 26,9).

9. Grafikoa.

Amateur mailako kultura-praktiken intzidentzia-rankinga (%)



Ez arpen nabarmen baino zertxobait txikiagoarekin, honako hauek nabarmentzen dira:

- ◆ Argazkigintza, % 25,6arekin.
- ◆ Margolaritza edo marrazkigintza eta musika (musika-tresna bat jotzea), bakoitzak gutxi gorabehera % 24arekin.

Finean, gutxiago hedatutako praktiken bloke bat identifikatzen da, eta biztanleriaren % 2 - % 6an du horrek eragina:


- ◆ Antzerkia (% 5,4)
- ◆ Irakurketa-klubak (% 2,4)
- ◆ Bertsolaritza (% 2,3)

- ◆ Beste ikus-entzunezko batzuk (% 3,3).

2008-2018 aldiko konparatiba historiko bat² eginez, gorakada nabarmena ikusten da margolaritza edo marrazkigintza ez diren arte plastikoak egiteari dagokionez³, % 4,6tik % 11,3ra igaro baita. Idazketaren kasuan ere igoera nabaria gertatu dela ikusten da; 2008ko % 5etik egungo % 9,1era.

10. Grafikoa.

Amateur mailako praktiken bilakaera, 2008-2018 aldian (%)



*Oinarria: Biztanleria osoa

Modu apalagoan bada ere, igoerak daude halaber argazkigintzaren praktikan (% 8,4tik % 10,8ra) eta bideo-sorkuntzan (% 2,3tik % 5,6ra), baita dantzan ere, zeina ia bi puntu igo den % 8,3raino.

Gainerako praktketan, aldaketa oso txikiak ikusten dira, balioesteko zailak, praktika minoritarioak baitira.

² 2018. urtean ez bezala, praktikak bakarka edo taldean egitea bereizten zen 2008. urtean. Bi aukeren ehunekoak gehitu dira konparazioa egiteko.

³ Kontuan izan behar da kategoriatik honek "Beste arte plastiko batzuk" zuela izena 2008an eta 2018an, aldiriz, "Eskulanak, artisau-lanak (Arte plastikoak)" bezala galdetzen zela.

5. PRAKTIKA DIGITALAK

5.1 Kultura-praktika digitalak

Arreta Internetera erregularri nortzuk sartzen diren jarrita (Iparraldeko biztanleriaren % 77,9), aldeak ikusten dira kultura-praktiken artean.

11. Grafikoa.

Kultura-praktika digitalen intzidentzia-maila biztanlerian azken hiru hilabeteetan (%)



*Oinarria: Internetera erregularri sartzen den biztanleria (% 76,3)

Emaitzetan ikusten den bezala, Internet ez da mundu ez-digitalean egiten diren praktikak beste formatu batean errepikatzen den lurraldea, baizik eta bereziki, informazioa eskuratzeko bitarteko eroso bat:

- ◆ Lehenik, oso zabalduta dauden (% 60tik gora) lau praktikak osatutako blokea nabarmentzen da, albisteen irakurketa, informazio-bilaketa, wikien kontsulta eta musika entzutea uztartuz.


- ◆ Bigarrenik, gutxiago zabaldua dauden (% 45 inguru) bi praktikak osatutako bloke batek kultura-educiko sarbide- edo deskarga-praktikak biltzen ditu, eta horrekin batera, webgune edo blog pertsonaletarako bisita. Praktika horietatik alde esanguratsura baina ez oso zabalera daude % 33,9arekin eta %31,5arekin, ikuskizunetarako tiketak erostea eta irratia entzutea, hurrenez hurren.
- ◆ Praktika minoritario gisa baina erlatiboki hedatuta daude ikuskizunak ikustea eta bideo-jokoetara jolastea (% 20,2 eta % 14,7, hurrenez hurren).
- ◆ Azkenik, museo edo erakusketetarako bisita birtualak, liburutegiko zerbitzuak erabiltzea Internet bidez eta webguneak edo blogak sortzea ilaran daude % 7 eta % 9 bitartean.

5.2 Kultura-educia duten plataforma digitaletara harpidetzea

Biztanleriaren guztizkoaren % **25,2k** kontu bat dauka kultura-educia duen plataforma digitalaren motaren batean (% 32,4k erregulariki Internetera sartzen den biztanleria soilik kontuan hartuz gero).

12. Grafikoa.

Kultura-educirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldearen arabera (%)




Kontu mota

Horrelako plataformetan konturen bat duten ohiko internautak kontuan hartuta, **hirutik bik ordaintzeko-kontu bat daukate**, dela banakoa (% 49), dela taldekoa (% 27,5).

13. Grafikoa.


Kultura-educirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldearen arabera (%)



Kultura-edukien tipologia

Biztanleria osoa kontuan izanda, % **20,4k** kontu bat dauka filmen eta serieen plataforma batean, % **16,1k** musika-plataforma batean eta % **1,7k** liburu digitalen plataforma batean.

14. Grafikoa.


Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak beren tipologiai jarraikiz, biztanleria-taldeen arabera (%)**5.3 Sare sozialak parte-hartze kulturean**

Internerara erregulariki sartzen den biztanleriaren artean:

- ◆ % 21,5ek sareak erabiltzen ditu beste artista batzuk ezagutzeko edo haiekin harremanetan jartzeko, profesionalak edo amateurrak direla ere.
- ◆ % 20,1ek ere gogoeta pertsonalak idazten ditu sare sozialetan, eta % 6,6k blog eta webgune pertsonaletan idazten du.
- ◆ % 18,2k beste autore batzuen material artistiko edo kulturala partekatzen du, eta % 7,1ek material propioa.
- ◆ % 9,8k gai kultural edo artistikoetako foroetan parte hartzen du.

15. Grafikoa.

Ohiko internauten artean, kultura-praktikek sare sozialetan duten intzidentziaren rankinga (%)




*Oinarria: Internetera erregularlari sartzen den biztanleria (% 77,9)

6. EUSKARAZKO PARTE-HARTZE KULTURALA

Iparraldeko biztanleriaren % 26,8 da euskarazko parte-hartze kulturala (eskuarki euskaraz parte hartzen dutela dioten pertsonak).

16. Grafikoa.

Normalean euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutela esaten duten pertsonak, biztanleria-taldean arabera (%)



Hizkuntza jakiteak mugatzen du euskarazko parte-hartze kulturala, eta horrekin batera berezko kultura-praktika bakoitzaren ezaugarriek eta hizkuntzak praktika bakoitzean duen eragina. Ildo horretan, ez da gauza bera musika entzutea eta liburu bat edo aldizkari bat irakurtzea, bertso-saio batera joatea edo euskarazko antzerkira joatea. Praktika batzuk beste batzuk baino testualagoak dira, eta, horrenbestez, hizkuntza jakitearen eragina aldatu egiten da praktika horien artean. Zenbat eta testualagoak izan, oztopo handiagoa izan liteke gaitasun nahikoa ez daukatenentzat.

Azterketan uztartzen diren eta eragina duten elementuak dira. Parte hartzen duen biztanleriaren arteko aldean egiazta daiteke, osorik hartzen bada edo biztanleria euskal hiztuna soilik hartzen bada. Azken segmentu horri erreparatzen badiogu, normalean euskaraz parte hartzen duen biztanleria % 72,1era iristen da.

6.1 Euskarazko kultura-praktikak

Praktiken arteko **zeharkako begiradari** erreparatuz, ikus daiteke biztanleria osoan intzidentzia handiena duen praktika musika⁴ entzutea dela (% 64,5). Biztanleria euskal hiztunaren kasuan, % 95 da portzentaje hori.


⁴ Kontuan izanda azken helburua euskarazko parte-hartzea biztanleria osoaren artean zabaltzea dela, praktikek duten intzidentzia erakusten da, biztanleria osoaren artean zein biztanleria euskal hiztunaren artean. Hizkuntza-oztopoa garrantzitsua bada ere, erreferentziatzat biztanleria euskal hiztuna soilik hartuz gero irudi lezake azken helburua euskarazko parte-hartze kulturala segmentu horretan soilik zabaltzea dela.

Ondoren, distantzia handira, antzerki-ikuskizunetara joatea (% 20,1; gutxienez behin azken 12 hilabeteetan) eta irakurketa daude (% 14,2, gutxienez behin azken 3 hilabeteetan). Zinemari dagokionez, euskarazko zinemarako lehentasuna biltzen dute datuek eta ez benetako asistentzia. Ildo horretan, % 18k euskarazko zinema nahiago du.

Hiru praktika horietarako, portzentajeak izugarri igotzen dira oinarritzat biztanleria euskal hiztuna hartzen bada.

17. Grafikoa.


Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldean arabera (%)



*Zinemari dagokionez ez da galdetzen euskarazko filmetarako asistentziagatik, baizik eta euskarazko zinemarako lehentasunagatik, hautatzeko aukera izanez gero.

Irudi osoagoa eskaintzeko, euskarazko zenbait praktiketarako **2008-2018 aldiko konparatiba historiko** bat ahalbidetzen duten galderak biltzen zituen inkestak euskarazko praktika batzuetarako (58. grafikoa).

18. Grafikoa.

Euskarazko kultura-praktiken bilakaera 2008tik 2018ra bitartean, biztanleria osoaren artean (%)


*Kulturaren Euskal Behatokiaren “2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestaren” ustiapenetik beretik datoz 2008ko emaitzak.

Konparatutako praktiketara, detektatzen da senda mantentzen direla praktika gehienak (igoera edo jaitsiera oso txikiak, interpretatzeko zailak, normalean minoritarioak direlako), igora argia bada ere bertsolarien ikuskizunetara joatearen kasuetan, % 4tik % 11,3ra gehitu baitira.

6.2 Euskarazko praktika digitalak

Zeharkako begirada batetik ikusita, ohiko internauten segmentua berriz ere erreferentzia gisa hartuta, berriz ere musika nabarmentzen da **% 30,1arekin** gainerako praktiken gainetik, **% 14** inguru baitaude.

19. Grafikoa.

Praktika digitalek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldean arabera (%)

ERANSKINA

Inkestaren fitxa tekniko

Laginaren informazio tekniko aurreratu dugu labur, zeina zabal daitekeen txosten metodologikoa erabilitako galde-sortarekin batera kontsultatuz.

Biztanleria-eremua	Iparraldea
Denbora-eremua	2018ko iraila-abendua
Laginaren diseinua	Ausazko laginketa geruzatua esleipen ez-proportzionalarekin
Geruzak eta kuotak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Lurraldeak ◆ Udalerriaren biztanle tamaina ◆ Sexua ◆ Adina ◆ Euskara jakitea
Tamaina eta haztapena	<p>1.150 elkarrizketa</p> <p>Azterlaneko biztanleriaren arabera haztatzen diren azterketarako datuak geruza eta kuoten banaketa proportzionala eskaintzeko.</p>
Lagin-akatsa	±% 2,94 (Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunean eskuragarri dagoen txosten metodologikoan kontsulta daiteke lagin-akatsaren estimazioa gurutzaketa-aldagaiak osatzen dituzten kategorietarako)
Konfiantza-maila	% 95,5 gehieneko indeterminazioko kasuan (p=q=% 50)
Elkarrizketa egiteko metodoa	Ordenagailuz lagundutako telefono bidezko elkarrizketa
Elkarrizketen iraupena	10-30 minutu



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco